



Kontzertuak dira jaien ikur nagusietako bat.  **HERRERAKO JAI BATZORDEA**

Luisitak eta Luisitok festa eskaintza zabala dakarte aurten ere Herrerara

San Luis eguna arte, hiru asteburuz luzatuko dira Herrerako jaiak. Hamar bat kidek eta inguruan duten sare zabalak aurrera eraman-gu ditu askotariko jarduera ugariak. Ohikoaren zale diren seinale, egitura eta jarduerak mantendu dituzte aurten ere.

🔗 Maitane Aldanondo Gabilondo

Ez bat, ezta bi ere. Hiru asteburu betetzen dituzte Herrerako jaiak. San Luis egunaren bueltan antolatutako badira ere, aurten, data horixe, hilaren 21a, izango da jaien amaierarena. Ordura arte, azken urteetako egitura jarraitzen duen jardueraz betetako egitaraua luzatuko da. «Ohiturakoak gara», aitortu du Ane Lazkano jai batzordeko kideak. Eta herreratarrak ere, antza. Arrakasta izaten jarraitzen baitute.

Lehen asteburua «kirolistikoa» da. Hau da, Mozkor Frentekideok-ek antolatutako kirol jarduerak dira nagusi, Larratxoko jaietara joateko gonbitarekin batera. Hurrengo bietan etorriko denaren aurrekaria besterik ez da, nahiz eta lehen egunetan egiteko dutena makala ez izan. Egitasmoak ostegunean, hilak 11, bueltatuko dira, jaien hasiera ofizialarekin. Elegante jantzita, Luisitak eta Luisitok pregoia

esango dute eta suziriaren eztanda ondoko brindisak bide emango dio pintxo-poteari.

Haurren txupinazoa, berriz, hilaren 13an egingo dute, eta haiek *Ene Kantak dantzan* ikuskizunaz gozatzeko parada izango dute jarraian. Horrez gain, beste hamaika aukera zain dituzte, antolatzaileentzat «oso garrantzitsua» baita haurrek «beren txokoa» izatea: txokolate jatea, puzgarriak, apar festa, haur txokoak, gaztelekuak edota AltzaLore taldeak antolatutakoak, erraldoi eta buruhandiak....

Azken horiei dagokienean, gazte talde batek hartuko du ardura, jai batzordetik kanpo egongo den Herrerako konpartsa sortzeko lehen pausoak izango dira, beraz. Gazteei begirako ekitaldiak ere izango dira, noski. Esaterako, Olinpiar Jokoak edota Bizargorri tabernak antolatuta grafiti tailerra eta rap kontzertua.

Auzoa kokatu

Lazkanok azaldu duenez, auzoa egitea da jai batzordearen lan eskerga eta ahalegin handiaren ardatza. «Herrera periferiako auzo bat da eta kostatzen zaigu egunerokoan jendeak bizitza egitea auzoan, auzo euskalduna izaten. Guretzat bada merezi duen ahalegina», azaldu du Lazkanok. Are gehiago, jaiak bizilagun ez direnei non dauden kokatzen laguntzea, «pozgarria da», eta zailtasunak zailtasun, jaiak euskaraz egitea, «harrotasuna».

Auzotik kanpo ere jaiak ezagun egin dituzte kontzertuek. Hilaren 12an, EH Sukarra, Parabellum eta Potatok joko dute, baina emanaldi nagusi horiez gain, beste asko izango dira musika eskaintzan. Esaterako, Andoni Oilokiegi, Elektrobiuika edota Sutargi. Lazkanok nabarmendu ditu ere «beste publiko bati zuzenduta» dauden Trebera taldearen *Ziaboga* kontzertua eta Donostiako Orkestra Barrokoarena.

Ezin aipatu gabe utzi 22 talde biltzen dituen paella lehiaketa, ardo dastaketa itsua edota Altzako Harria, aurten, Muxikatarrak, Ñoñostiarrak, Aatraxtarrak, Emaion! eta Parte Zaharreko taldea lehiatuko dira. ●



OSTIRALA 5

19:30

Mozkor Frentekideok-en Emakumezkoen XII. Liga txapelketaren 3. eta 4. posturako partida.

20:30

Mozkor Frentekideok-en Gizonezkoen XXXIX. Liga txapelketaren 3. eta 4. posturako partida.

LARUNBATA 6

10:00

XII. Emakumeen Mozkor Frentekideok Herrerako Jaiak pala txapelketaren ligako finala.

11:00

Hamaiketakoa Pasaiako txistulariekin, Xixurkil trikitixa eta Mozkor Frentekideok Otxotearrekin.

11:05

XXXIX. Gizonen Mozkor Frentekideok Herrerako Jaiak pala txapelketa ligako finala.

12:00

Angelusa Pasaiako txistulari eta Mozkor Frentekideok Otxotearrekin.

12:30

Sari ematea Pasaiako txistulari, Xixurkil trikitixa, eta Mozkor Frentekideok Otxotearrekin.

13:00

Kalejira Mozkor Frentekideok Otxotea, Xixurkil trikitixa eta Pasaiako txistulariekin.

14:00

Bazkaria Mozkor Frentekideok Otxotearrekin eta Xixurkil trikitixarekin.

16:00

Xixurkil showa.

20:00

Denok Larratxora, berreskura dezagun!

20:30

Sardina jana herrikoia Zumardi pasealekuko plazan.

IGANDEA 7

08:30

Mendi irteera, Herrerako plazatik!

ASTEAZKENA 10

19:00

Haur eta helduen danborrada entsegua, Euskal Giroan.

20:00

Mon «Ese Q Canta» bakarlariaren «Per-Versiones» kontzertua Bizargorri tabernan.

OSTEGUNA 11

17:00

Haurren zinema, Herrera K.E.-an.

18:00

Musika eskolako taldeen kontzertua, Herrerako plazan.

19:00

Herrerako jaietako txupinazo elegantea pregoi eta txanpai! Kilikariak txarangarekin.

19:10

Herrerako jaietako XIII. pintxo-pote elegantea, Kilikariak txarangarekin.

19:30

Musika eskolako konboak: kontzertua, Herrerako plazan.

21:00

Etxera? Eleganteon txosna zabalik dagoela!



ZUMARDI
taberna



GORA HERRERAKO JAIK!

ZUMARDI PASEALEKUA 22, HERRERA - Tel. 943-39 37 75

OSTIRALA 12

17:00

Haur eta gazteentzako jarduerak/jolasak
Altza Haurtxoko eta Gaztelekuaren eskutik,
Euskal Giroa aurrean.

17:30

Ikastetik edo lanetik jaietara! Herrera goitik
behera gozatuz. Aupa gazte!

19:00

Ziaboga kontzertua, Pasaiaiko Trebera
taldearen eskutik, Herrerako San Luis
parrokian.

21:00

Gaua luzea dela, denok afaltzera, trikiaren
kalejirak auzoa alaituko digu!

22:00

Kontzertuak: EH Sukarra, Parabellum eta
Potato.

03:00

Rider DJ-a, txosnagunean.

LARUNBATA 13

06:00

Baratxuri zopa, Bizargorri tabernan.

09:00

Diana Donostiako txistulariekin.

12:00

XII. Herrerako jaiak paella lehiaketa.

12:30

Batzuk plazan dantzan eta beste batzuk su
gainean dantzan, kale animazioa Herrera
behetik gora alaituz!

14:00

Herri bazkaria: paella jana.

17:30

Gazteentzako eta ez hain gazteentzako
Olinpiar Jokoak. Saria Bizargorri tabernaren
eskutik.

17:35

Arratsaldeoa Nido tabernan Lore DJ-arekin.

Irutxuloko Hitza

17:45

Haur txupinazoa. Denok dantzara Luisito eta
Luisitarekin.

17:45

2026ko marrazki lehiaketaren sari banaketa.

18:00

Haurrentzako ikuskizuna: Ene Kantaken *Ene
Kantak Dantzan* ikuskizuna.

18:15

Grafiti tailerra, Bizargorri tabernan.

20:30

Kirolari olinpiarrentzako afaria, plazan.

21:00

Sardina jatea, Herrerako plazan, Herrerako tri-
kitixa eta Mozkor Frentekideok Otxotearekin.

21:30

Andoni Oilokiegirekin gaua berotzeareari ekin.

00:00

Musika festa Bidean erromeria taldearekin.

02:00

Mozkor jokoak.

IGANDEA 14

09:00

Diana Herrerako txistulariekin.

11:00

Herri Ametsaren eskutik Dantzari Txiki eguna:
Euskal dantza erakustaldiak, auzoan zehar.

Umeentzako puzgarriak, plazan.

12:00

Marianito Fest. Zatoz txosnara jaietako bermuta
hartzera. Bermut mota ezberdinak egongo dira!

12:30

Kantu jira. Herrera Kantuz abesbatza
herrikoiarekin eta Herrerako Musika
eskolako trikitilariekin.

13:00

Erraldioen dantza erakustaldia,
dultzaineroen laguntzarekin, Herrerako
plazan. Luisito eta Luisita, jira eta bira.

14:30

Herrerako jaiak herri kantu barrikotea
txistulariak, trikitilariak eta Mozkor
Frentekideok Otxotearekin.

16:00

Umeentzako puzgarriak plazan.

17:30

Herri kirolak. Saralegi anaiak.
Aizkolariak: Iker Vicente, Malen Barrenetxea.
Harri jasotzaileak: Eneko Saralegi, Oihana
Fernandez De Barrena.

19:00

Herrerako txistulari eta dultzaineroekin,
goazen denak dantzatzera... has dadila
buruhandien entrenamendua!

19:30

Erromeria gidatua eta Pandaren
bakarrizketa.

20:30

Salsa gaua, mugi ditzagun aldakak!

ASTEARTEA 16

18:30

Yoga saioa Arun Ile apaindegia eskutik
(topaketa Auzotegian).

19:00

Haur eta helduen danborrada entsegua,
Euskal Giroan.

ASTEAZKENA 17

19:00

San Joan suaren dantza entsegua
Auzotegian, dantzen azken
errepassoa.

OSTEGUNA 18

18:00

Haurren Herrerako Jaietako VIII. futbolin
txapelketa, Nido tabernan.

19:00

Herrerako Jaietako VIII. futbolin txapelketa,
Nido tabernan.

20:00

Unotresmobb eta Kost & Orbe rap kontzertua, Bizargorri tabernan.

OSTIRALA 19**18:30**

Herrerako Harria apustua: 500kg-ko harria nork azkarrago igo frontoiko aldapatik? (Bizargorri tabernak lagunduta).

21:30

Afariak eskainiko dira plazan: parrillada.

23:00

Musika festa: Kaxkatu taldearen kontzertua txosnan.

00:00

Giroa eta musika ez da geldituko, tope denok dantzan txosnan.

LARUNBATA 20**11:00**

Umeentzako puzgarriak BM supermerkatuen eskutik.

AltzaLorek antolatutako ginkana erraldoia.

12:00

Ardo kata, Herrerako plazan.

14:00

Bazkaria Aterpean jubilatuta eta ez jubilatuentzat.

16:00

Umeentzako puzgarriak BM supermerkatuen esku.

17:30Haurrentzako kale ikuskizuna: Patata Tropicalaren *Ehiztari ehizatua*, Herrerako plazan, Bizarrain elkartearen eskutik.

Beti-alai taldearekin dantzaldia, Aterpean.

18:30

Haurrentzako txokolate jana, Herrerako plazan.

19:00

Donostiako Orkestra Barrokoaren kontzertua, Herrerako parrokiaren.

19:30

Haur eta helduen danborrada Arraketai txarangarekin, erraldoiak, buruhandiak eta guzti.

20:45

Afariak eskainiko dira plazan, Herrera Sukalde Komunitarioaren jaki goxoak.

22:00

Elektrobiuakia elektrotxaranga.

00:00

Itzal taldearekin erromeria, Herrerako plazan.

IGANDEA 21**11:00**

Herrerako X. Boilur Azoka eta artisau azoka. Nafarroa, Araba, Errioxa, Hueska, Soria...-tik etorritako boilur biltzaileen erakusketa eta

Altzako baserritarrak, zeramika, bitxiak, taloak, buruhandiak, jostailuak, motxilak...

11:30

Uretako jolasak eta puzgarriak.

12:00

Herri meza Ibaeta Abesbatzarekin, Herrerako parrokiaren.

Erraldoi eta buruhandien irteera albokalariekin... Auzoan zehar dantzan dabilta!

13:00

Jubilatuentzako ordubetetakoa, mokadu ederra, Herrera K.E.-n Mozkor Frentekideok Otxotearrekin eta Herrerako Koru Parrokialarekin.

14:30

Ospa dezala bakoitzak San Luis bazkari erraldoia. San Luis egunean bixigu ere izan ginen, eta izatera itzuliko gara! Mozkor Frentekideok Otxotearrekin.

15:30

Uretako jolasak eta puzgarriak.

17:00

Apar festa, Herrerako plazan.

18:00

Trikiti, Herrerako txistulari eta dultzainlariekin, goazen denak dantzatzer... has dadila buruhandien entrenamendua!

19:00

Sutargi erromeria taldearen kontzertua, Herrerako plazan.

ETXERA ZERBITZUA!

☎ **943265691**

Bizargorri Taberna

OGITARTEKOAK | HANBURGESAK | ANOAK

PLATERAK | VEGANOENTZAT JANARIA | GLUTEN GABEKO JANARIA

📍 HELBIDEA: ALKATE JOSÉ ELOSEGI HIRIBIDEA 133 BEHEA | 📷 INSTAGRAM: @BIZARGORRI2.0

GORA HERRERAKO JAIK!